

ISSN: 2530-6561  
2022ko abendua  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka

Gema Celorio Díaz, Juanjo Celorio Díaz,  
Amaia del Río Martínez, Iris Murillo Hidalgo



# Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka

Gema Celorio Díaz, Hegoaren Hezkuntza Taldea

Juanjo Celorio Díaz, Hegoaren Hezkuntza Taldea

Amaia del Río Martínez, Hegoaren Hezkuntza Taldea

Iris Murillo Hidalgo, Hegoaren Hezkuntza Taldea

## Aurkibidea

<b>1.</b> Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka .....	5
<b>2.</b> Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren definizioa eta ezaugarriak .....	13
2.1. Kapitalismoa desnaturalizatzea .....	13
2.2. Izateko, ikasteko eta jarduteko modu koloniala desikastea .....	17
2.3. Feminismo kritikoak eta interseksionalitatea .....	19
2.4. Askotariko subjektuen arteko harremana, elkarrizketa eta artikulazioa .....	19
2.5. Eraikuntza komunitarioa. Kolektiboaren eta komunitarioaren zentzua berrikastea .....	19
2.6. Gizarte-aldaketako prozesuetan parte-hartzea .....	19
<b>3.</b> Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza, abian den prozesua .....	24
3.1. Borroka feministen ekarpen pedagogikoak .....	13
3.2. Elikadura-subiranotasunaren aldeko mugimenduaren ekarpen pedagogikoak .....	13
3.3. Giza eskubideen aldeko borroken ekarpen pedagogikoak .....	13
3.4. Arrazismoaren aurkako mugimenduaren ekarpen pedagogikoak .....	13
3.5. Ekarpen pedagogikoak Unibertsitate kritikoaren proposamenetan .....	13
<b>4.</b> Ondorio gisa. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren erronkak eta iradokizunak .....	24
<b>4.</b> Bibliografia .....	24

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza  
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga  
Iker Etxano  
Mertxe Larrañaga  
Elena Martínez Tola  
Mikel Zurbano

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka](#)

Egileak: Gema Celorio Díaz, Juanjo Celorio Díaz, Amaia del Río Martínez eta Iris Murillo Hidalgo

hegoak zabalduz - 28. zk. 2022ko abendua

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Elhuyar Plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia  
138. posta-kutxa  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,  
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Zibilizazio-krisiaren testuinguruak agerian uzten du trantsizio emantzipatzaile bat bultzatu behar dela, bizimodu duina eraikiko bada eta gizarte- eta ingurumen-justizia lortzeko xedeak gauzatuko badira. Erronka horri aurre egiteko gai izango den ikuspegi gisa aurkezten da, hain zuzen ere, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Testua gaur egungo egoeraren irakurketa kritikotik abiatzen da, eta garapen kapitalista, patriarkala eta koloniala jotzen dira krisiaren erantzuletzat. Menderakuntza-egitura sinbiotiko horiek haren erreproduzioa ziurtatzen dute, indibidualizazioaren eta despolitizazioaren bidezko estrategiak hedatuz. Jarraian, hezkuntza-proposamen horren ezaugarriak azaltzen dira, eta azpimarratzen da zein premiazkoa den ordena nagusia desikastea eta ekimen emantzipatzailearen giltzarriak eskaintzea: begirada feministak, komunitatearen eraikuntza, askotariko subjektuen arteko elkarrizketa eta egituraketa... Ondoren, adibide global eta tokiko batzuk ematen dira, praxi askatzailearen ideiaz jabetzen laguntzen duten eta dagoeneko martxan dauden esperientzia eraldatzaileak erakusten dituztenak. Atal honen adibide dira borroka feministak, arrazakeriaren aurkakoak, nekazariak eta eskubideen aldekoak. Azkenik, epe ertain eta luzeko hezkuntza-ekintza inspiratzeko iradokitzailatzat jotzen diren eraikuntza kolektiboko espazioetan eztabaidatutako ildo estrategiko batzuei heltzen zaie berriro ere.

**Hitz gakoak:** Zibilizazio-krisia, ekintza emantzipatzailea, eraikuntza komunitarioa, praxi askatzailea, askotariko subjektuak..

**Abstract:** The context of the civilisational crisis highlights the need to promote an emancipatory transition for the construction of a dignified life and the achievement of the goals of social and environmental justice. Education for Social Transformation is presented as a vision capable of meeting this challenge. The text starts from a critical reading of the current situation and considers capitalist, patriarchal and colonial development to be responsible for the crisis. These symbiotic structures of subordination ensure their reproduction through the expansion of strategies of individualisation and depoliticisation. The characteristics of this educational proposal are set out below, emphasising the need to unlearn the dominant order and to provide the keys to the emancipatory initiative: feminist perspectives, community building, dialogue and structuring between different subjects... Next, we provide some global and local examples that raise awareness of the idea of liberatory praxis and show transformative experiences already underway. Examples in this section are feminist struggles, struggles against racism, farmers and rights defenders. Finally, some of the strategic lines discussed in the spaces for collective construction are taken up again, which are considered to inspire educational action in the medium and long term.

**Keywords:** Crisis of civilisation, emancipatory action, community building, liberating praxis, diverse subjects.

*Baina ondoeza ez da nahikoa. Nahiz eta inkonformismoaren hazia eduki, beharrezkoak dira nahigabea ekintza politiko bihurtuko duten mekanismoak. [...] Ordezkaritzaren eta legitimitate politikoaren krisi-garaietan, posible denaren mugak norabide guztietan zabaltzen dira, bai erreakzionarioetan, bai emantzipatzaileetan. Ezinegonak erresuminerantz eta gorrotorantz ez egitea eta, horren ordez, emantzipatzeko ahalmena duen amorru duin baterantz bideratzea da gaur egun gizarteek aurrez aurre topatzen duten dilema, ondoeza nagusi den garai hauetan.*

(Santiago Álvarez Cantalapiedra, 2022).

## 1. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeko erronka

Hirugarren milurteko honen hastapenetan egokitzen ari zaigun errealitatea azaltzeko termino bereizgarri bat aukeratu beharko bagenu, *krisia* izango litzateke, ziurrenik. Krisi demokratikoa, ekonomikoa, zaintzen krisia, elikaduren krisia, krisi energetikoa, ekologikoa... Egia da beti norbaitek gogoraraziko digula krisialdiak konstante bat izan direla gizateriaren historian. Eta bat etorriko gara horretan. Baina, hala bada, zer berritasun du(te) garai honetako krisiak/krisiek?

Agian garrantzitsuena da krisi horiek guztiek, zeinaren arrazoiak eta erantzuleak ondo ezagutzen baititugu, agerian uzten dutela gure garapen-ereduaren porrota.

Eredu horrek kapitalismoaren esku utzi du bizitzaren antolaketa –bai pertsonena bai planetarena–; eta kapitalismo horrek, era berean, aurpeirik ilunena erakutsi du globalizazio neoliberalaren garaian. Konpainia transnazional handietan eta finantza-korporazioetan irudikatutako ordena kapitalista dago, hain justu, pobrezia, desberdintasuna eta bazterketa areagotzearen eta bizi dugun krisi ekologiko sakonaren erroan.

Klima-aldaketa, energia-krisia, deforestazioa eta kutsadura dira mugak dituen planeta batean –baliabide mugatuekin– bizi garela eta gizakiok elkarren mendekoak eta ekodependenteak garela alde batera uztearen ondorioetako batzuk.

Logika kapitalisten araberako hazkunde ekonomikoaren obsesioa arrisku larria da bizitzarako, eta merkatuen eskakizunen mende uzten ditu ekologia eta pertsonen arteko harremanak. Eta, jakin badakigunez, merkatuen funtzionamendua aberastasunaren metatze-logikaren araberakoa da, eta aberastasun hori esku gutxi batzuetan biltzen da, ekitatez banatuta egon beharrean.

Kasu honetan, ondorio zuzenek adierazten digute gero eta jende gehiagok izango duela, bai orain bai etorkizunean, pobrezia<sup>1</sup> eta desorekak markatutako bizitza prekariora (Oxfam International, 2022).

---

1 Oxfamen arabera (2022), 2022. urtean 263 milioi pertsona gehiago sar daitezke muturreko pobrezian, COVID-19ak, desberdintasunak eta elikagaien eta energiaren prezioen inflazioak, guztiak nahasturik, izan duten ondorioagatik; eta hori guztia Ukrainako gerrak areagotu du. Herrialde pobreenek zorraren krisiari egin behar diote aurre, eta soldaten erosteko ahalmena gero eta txikiagoa da; bien bitartean, enpresen irabaziak izugarri handitzen ari dira, eta aberatsen aberastasuna aurrekaririk gabeko mailara iristen ari da.

1. taula. Ikus ditzagun datuak	
% 1	Biztanleriaren % 1 aberatsenak 6.900 milioi pertsonaren aberastasunaren bikoitza du.
5.50 \$	Gizateriaren ia erdia –3.400 milioi pertsona– egunean 5,50 dolar baino gutxiagorekin bizi da.
100 M	Urtero mundu osoko 100 milioi pertsona pobrezian murgiltzen dira, osasungintza beren poltsikotik ordaindu behar izaten dutelako.
258 M	Gaur egun, 256 milioi haur daude eskolatu gabe: bostetik bat.
% 50	Mundu mailan, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala % 24koa da. Gizonek emakumeek baino % 50 aberastasun handiagoa dute.

Iturria: Oxfam International (2022).

Baina, gainera, kapitalismoak sistema erabat patriarkalarekin egiten du bat.

Patriarkatua nagusitasun-eredu baten eraikuntza historikotzat hartzen dugu. Eredu horrek gizonei ematen die boterea, eta haien interesak, beharrak eta pribilegioak jartzen ditu emakumeen interesen gainetik, eta, orobat, gizonezko arketipoaren<sup>2</sup> parte ez den edozein kolektiboren interesen gainetik.

Nagusitasun maskulino, zuri, burges eta mendebaldar horrek zapalkuntza- eta desberdintasun-mekanismo propioak sortzen ditu, eta areagotu egiten dira beste menderakuntza-kategoria batzuekin elkar eragiten dutenean.

Kapitalismoa eta patriarkatua aipatu ditugu, baina ez da ahaztu behar, menderakuntza-egituren arteko erlazio horretan, kolonialtasuna dagoela horien ondo-ondoan. Kontzeptu horrek menderakuntza-kategoria baten iraunkortasuna adierazten du, eta, horren bidez, munduan gailentzen da –komunitateetan eta lurraldeetan– mendebaldeko zibilizazio-ordenari dagokion izateko, egoteko eta ekoizteko modua.

Mendeetan zehar konkistaz eta espoliazioz jositako ezarpen kultural horren ondorioz, ekoizpen kapitalista irudikatzen duen proposamenari jarraitzen ez dion edozein ezagutza, antolaketa komunitario eta lurraldeekiko lotura mota ikusezin bihurtu, baztertu eta gutxietsi egin da.

Beraz, krisiak pilatzen eta kateatzen dituen zibilizazio-eredua da; ez du krisietako bat bera ere gainditzeko gaitasunik, eta kolapsoaren muga-mugan jartzen ditu gizateria eta planeta.

Ordna hegemoniko edo nagusi deitzen diogun egitura kapitalista, patriarkal eta kolonial horren emaitza ez da soilik ekoizpen-modu ekonomikoetan adierazten, naturalizatzeko, eusteko eta erreproduzitzeko ezinbestekoak diren kultura- eta hezkuntza-produkzioan ere adierazten da.

Horregatik gaude, hain zuzen ere, zibilizazioa aldatzeko premian, eta, horretarako, irauli egin behar dira garapen-eredu horri eutsi dioten egitura ekonomiko eta politikoak. Baina, aldi berean, beharrezkoa da erabateko aldaketa kulturala bultzatzea.

Joera merkantilizatzaileak indar handiz sartzten dira eremu guztietan, eta helburu oso argiarekin egiten dute, gainera: ekoizpen kapitalistaren eskakizunei erantzuteko pertsona indibidualizatuak, isolatuak eta oso gaituak sustatzea, baina eredu horrek ezartzen duen murruntzaren aurrean matxinatzeko gai izango ez direnak, horri buruz gogoeta egiteko eta are gutxiago zalantzan jartzeko “ezgaitu” baitira.

Barneratutako balioak (indibidualismoa, lehiakortasuna, arrakasta, metaketa, merkantilizazioa, hiperkontsumoa, matxismoa, arrazakeria, antropozentrismoa...) desikasteko erronkari aurre egin beharko diogu, baldin eta menderakuntza-eredu horren erreprodukzioan dugun inplikazioa hautsi nahi badugu.

2 Hala definitu zuen Amparo Moreno Sardák (1986), “klase eta herri nagusietako gizon helduaren giza eredu partikularra, gizakiaren existentziaren iraganaren eta orainaren gaineko eraikuntza osoari eragiten dion eredu” adierazteko; Amaia Pérez Orozcok (2018) ZBGHh ereduaren esan zion horri: zuria, burgesa, gizona, heldua, heterosexuala.

Baina kontuan hartu behar dira, halaber, zer ondorio soziologiko dituen, pertsonentzat eta giza taldeentzat, denbora luzean krisiaren testuinguruan murgiltzeak; izan ere, giza bilakaeraren berezko ziurgabetasuna mehatxu bihurtzen da. Santiago Álvarezek (2022) aipatzen digun gizarte-ondoeza, berak adierazten duen bezala, jarrera kontserbadore eta erreakzionarioagoetara bidera daiteke, edo –Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan proposatzen den bezala– jarrera errebeldeago eta emantzipatzaileagoetara, zeinak eskatuko baituten herritarrentzat gizarte-proiektua elkarrekin erabakitzeko eskubidea.

Lehenengo aukeran, jarrera erreakzionarioak eta kontserbadoreak ezartzen dira, beldurrean eta ezintasunean oinarritutako diskurtsoen ondorioz. Horien arabera, formula autoritarioagoetan eta kontrol handiagoan dago gure arazoaren konponbidea, “gure bizimodua” arriskuan jartzen duten mehatxuak, nahita horrela eraikiak, neutralizatzen<sup>3</sup>. Adituen esku utzi behar da, beraz, politika. Nahiz gure demokrazia formaletan doktrina neoliberalen aurrean otzanak diren –gehienak– alderdi politikoen esku; nahiz arazoei aurre egiteko irtenbide zientifiko-teknologikoak proposatzen dituzten elite teknokratikoen esku. Diskurtso horiek urrundu egiten dituzte herri-boterearen erabakiak. Oso narratiba antidemokratikoak dira, eta gure subiranotasuna, pentsatzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta gure proiektu komunitarioak erabakitzeko gaitasuna usurpatzen dute.

Baina bizitzak hegemoniaren eta emantzipazioaren arteko tentsioan egiten du aurrera. Horregatik, bigarren aukeran, diskurtso horiek indarra hartzen saiatzen badira ere, zalantzan jartzeko eta disidentziarako espazioek ere aurrera egiten dute aldi berean, eredu horren eguneroko indarkeriak eta egiturazkoak salatzen. Baina ez bakarrik horretarako. Baita feminismitik, arrazismoaren aurkakotasunetik, ekologismitik edo antimilitarismitik abiatuta komunitate-eraikuntzarako alternatibak iradokitzen ere, ikuspegi ekosozialetatik, ekonomia eraldatzaileetatik, beharpenetik, autokudeaketatik, subiranotasunetik (elikadura subiranotasuna, herri subiranotasuna, subiranotasun energetikoa)... abiatuta.

Gure oraina dago jokoan, baina baita datozen belaunaldien eta planetan gurekin batera bizi diren espezieen eskubideak ere. Víctor M. Toledok irmotasunez adierazten du:

*Krisi globala zibilizazio-krisi bat dela are nabarmenago izan da bat egin dutenean COVID-19aren pandemiak, tokiko, eskualdeko, nazioko eta mundu mailako krisi ekologikoak, gerra nuklear baten ezkutuko mehatxuak eta desberdintasun sozialak –historian izan duten mailarik gorenean–. Argi dago erabateko eraldaketa behar dela gizarte-bizitzaren eremu guztietan, eta lehenengo da onartzea ez gaudela aldaketa ekonomiko, teknologiko edo kultural soil baten aurrean, zibilizazioaren eraldaketa baten aurrean baizik (2022:25).*

Hori guztia kontuan hartuta, sistema aldatzea erronka izugarri handia da. Isabel Rauberrek (2014) adierazi zuen bezala, ezezagunaren erronkaren aurrean gaude. Ez dugu plano zehatzik, iparraldea erakutsiko digun iparroratzik. Badakigu, ordea, zibilizazio-eredu berriak eraiki behar direla erabat bestelako oinarrien gainean: gure bizitzan nagusitasuna, indarkeria eta zapalkuntza desagerraraziko dituztenak; kapitalismo modernoaren, patriarkatuaren eta kolonialtasunaren oinarri material eta soziologikoak aurrez aurre jarriko dituztenak; elkarrekin eta guztion onerako eraikiko direnak.

Erronka handia da, indarkeria eta nagusitasuna desikastea dakarrelako –bakarka nahiz taldean–. Eta Santiago Álvarezek testu honen hasieran baliatutako aipamenean gogorarazi zuenez: “atsekabea ekintza politiko bihurtuko duten mekanismoak behar dira” (2022:12).

Horretan sartzen da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Hain zuzen ere, ardura, gaitasuna eta eraldatzeko borondatea duten subjektuak eratuko dituen hezkuntza. Izan ere, Enrique J. Díaz Gutiérrez (2022) egilearen arabera, hezkuntzak izan beharko luke neoliberalismoaren eta neofaxismoaren basakeriaren aurreko antidotorik indartsuena. Zentzu horretan ari gara itxaropenaren alde borrokatzeaz ari garenean, murgildu nahi gaituzten ezintasunari uko egiteaz, inposatutako isiltasunaren aurrean eta amets egiteko eta erabakitzeko dugun gaitasunaren usurpazioaren aurrean matxinatzeaz.

---

3 Adierazi nahi dugu nola eraikitzen den immigrazioa, terrorismoa, delinkuentzia, segurtasunik eza modu indiskriminatu baina izugarri eraginkorrean nahasten dituen kontakizun bat; halako eran non gure iruditeria kolektiboan irudikatu eta gorpuztuko den “garaitu beharreko etsai” gisa eta sistematikoki estigmatizatu edo barregarri utziko den salaketa eta protesta sozial oro (“feminaziak”, “perroflautak”, “biolentoak”, “antisistema”, “genero-ideologia”,...).





Sainz de Murieta, Joseba (2018). Soñar, horma-irudia Bilboko Olabeaga auzoan.

Sinetsita gaude gaitasuna dugula bizi garen mundu problematiko hau arautzen duten oinarriak aldatzeko. Baina, horretarako, eraldatzen ikasteko aukera emango digun hezkuntza behar dugu. Marxek *Feuerbach* buruzko XI. *Tesia* idatzian iradokitzen zuen bezala: "Filosfoek mundua era askotara interpretatu besterik ez dute egin, baina mundua eraldatzea da kontua" (1845). Eta ikaskuntza horri deitzen dio pedagogia kritikoa praxi askatzailea:

*Praxia ezin da errealitate historikoa interpretatzeko edo ulertzeko prozesuetara mugatu; aitzitik, nahitaez behar ditu historia eta mundua modu zehatz eta materialean eraldatuko dituen prozesuak, hau da, praxiak interpretazioaren eta errealitatearen eraldaketaren arteko lotura estua eta banaezina dakar ondorioz, eta horrek zuzenean hartzen ditu barnean subjektuen alderdi intelektuala, kognitiboa eta arrazionala garatzera mugatzen diren hezkuntza-ikuskerak, antolaketaren, mobilizazioaren eta ekintza kolektiboen prozesuak bultzatu gabe. (Cabaluz, 2020).*

Hemendik aurrera, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamen hau zertan den azaltzen saiatuko da testu hau. Azken batean, pentsamendu kritiko saihestezina, beharrezko kontzientziazioa eta praxi askatzaile hori garatzera bideratutako hezkuntza, beste mundu posible batzuk eraikiko dituen, non justizia soziala eta ingurumen-justizia izango baitira bizitza duin eta jasangarriak eratzeko esparru etiko eta politikoa.

## 2. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren definizioa eta ezaugarriak

Elementu horiek guztiak –pentsamendu kritikoa, kontzientziarioa, praxi askatzailea, ekintza kolektiboa– ideia emantzipatzaileak dira, zeinak, zalantzarik gabe, modu positiboan eraldatuko baitituzte kapitalismoaren logiketan harrapatuta dauden pertsona eta kolektibo gehienek bizitzak. Zentzu horretan esaten dugu askapen-proiektu bat dela hezkuntza, aukera ematen duena menderakuntza-harremanek nola funtzionatzen duten ulertzeko, gure bizitzak zeharkatzen dituzten zapalkuntzak identifikatzeko eta politikoki mobilizatzeko eraldaketa sozialaren alde. Paulo Freirek erabilitako zapalkuntza kontzeptuan oinarritzen den hezkuntza da, azken batean<sup>4</sup>.

Gaur egun, gizartea eraldatzeko prozesuak pentsatzeko mendebaldeko modernizazio- eta zibilizazio-proiektu bortizetik aldendu behar da, baita giza sistemen eta sistema naturalen arteko harreman berri bat ezarri ere. Sakontasun eta garrantzi handiko eraldaketa da, eta beharrezkoa da ezagutzea zapalkuntza, desberdintasuna eta injustizia sortzen duten egiturak eta dinamikak eraldatzeko duen ahalmena. Ikaskuntza iraultzat hartuta, bell hooksen hitzetan<sup>5</sup>.

Taldean eraikitzen ari garen ezagutza bat da; eta zibilizazio-eraldaketa horretan laguntzeko edozein espazio eta denboratan sortzen den ikaskuntzaren emaitza. Sustatzen dugun hezkuntza-ekintza ez dagokio hezkuntza-eremu edo -eredu jakin bati bakarrik, aitzitik, kolektibo, lurralde eta borroka bat baino gehiagoren arteko elkarrizketaren, trukearen eta esperimentazioaren ondoriozko gizarte-ekintza da –batez ere–. “Hezkuntza hedatua” kontzeptuaren bitartez, hegemonia lehiatzen eta bizitzarekin bateragarriak diren alternatibak sortzen ikasteko prozesuak aipatzen ditugu (Juanjo Celorio, 2020).

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak gaur egungo zibilizazio-krisiaren testuinguruan duen zentzua azaldu ondoren, pertsonen, herrien eta naturaren bizi-eskubideak bermatzen dituen kultura-aldaketaren proposamen honen funtsezko printzipioak zehaztuko ditugu.

### 2.1. Kapitalismoa desnaturalizatzea

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak, garapen-ereduaren porrota agerian uzten duen proposamena den aldetik, aurre egin behar die ordena hegemoniko kapitalistari eta sustatzen dituen balioei.

Kapitalismoa naturalizatu dugu, eta, ondorioz, logika produktibistetan oinarritutako ezagutza eta ekintza legitimatu dugu. Mundua interpretatzeko dugun modua aldatzea funtsezkoa da garapen horrek globalizazio kapitalistaren fasean sortu duen errealitate bortitza eraldatzeko. Honela azaltzen du Arturo Escobarrek:

*Izan zitekeen garapenaren ekonomia ia-ia hilik egotea, eta finantza-krisiak ekonomia neoliberala muineraino astindu izana, baina iruditeria ekonomikoak –merkatuetan transakzioak egiten dituzten gizabanakoen, hazkuntzaren, kapitalaren, aurrerapenaren, eskasiaren eta kontsumoaren ikuspegitik– aurrera jarraitzen du, oztoporik batere gabe. Diskurtso naturalizatu horrek ahultzen ditu iraunkortasunerako eta karbono-osteko aroaren alde egiteko gaur egungo proposamen asko, edo gehienak. Ekonomia [neoliberal] desnaturalizatzea lan-esparru kritiko aktiboa da... (2014:16).*

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak justiziaren, duintasunaren eta iraunkortasunaren printzipio etikoen arabera beste modu batera eraikitzeko, bizitzeko eta elkarbizitzeko aukera zabaltzen du. Barneratu dugun kultura- eta hezkuntza-eredu neoliberalaren balioak zalantzan jartzen hastea da (indibidualismoa, lehiakortasuna, metaketa, hiperkontsumoa...) mundua ezegonkortzeko eta eraldatzeko lehen urratsa. Eta elkarrekin bizitzeko gizarte-proiektuekin saiakerak egitea kapitalismoa desikasteko ikaskuntzen parte da. Horrela pentsatzeak bizitzeko eta elkarbizitzeko modu desberdinak ekartzen ditu, eta, horietatik abiatuta – Isabel Rauberrek planteatzen duen bezala–, “ulertzea posible dela beste modu batera bizitzea eta, ikaskuntza horretatik aurrera, bizimodu berriak garatzen joatea, irteera alternatiboen arrastoak sortuz” (2018:81).

4 Pedagoga do oprimido (1970, 2005) lanean, Freirek erreibindikatzen du beharrezkoa dela zapalkuntzaz jabetzea askatasuna lortzeko.

5 bell hooks (2021): Enseñar a transgredir. La educación como práctica de la libertad (Marta Maloren itzulpena eta hitzaurrea).



## 2.2. Izateko, ikasteko eta jarduteko modu koloniala desikastea

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza lagungarria da munduari mendebaldeko zibilizazio-ordena inposatzearen ondorioei buruzko gogoeta kritikoa egiteko. Menderakuntza-modu horiek nola funtzionatzen duten bereizteko, kolonialismoa eta kolonialtasuna bereizi behar dira.

Kolonialismo historikoa –aberastasunen usurpazioak eta lanaren ustiapen etengabea bereizgarri izan dituen forma politiko-administratiboa– eraldatu egin da, eta menderakuntza modu berri eta zaharrei eusten dien neokolonialismo kapitalista batek ordezkatu du. Ezagutzaren hierarkiek eta arraza-irizpideetan oinarritutako mendekotasun-harremanek indarrean jarraitzen dute oraindik ere.

Kolonialtasuna botere-eredu bat da: gizarteen, subjektuen eta ezagutzen arteko aldeak legitimatzen ditu eta, era horretara, menderakuntza-harremanak errepikatzea ahalbidetzen du. Gure izateko, pentsatzeko eta jarduteko moduen osagaia da alde hori, baina aldeak edo diferentziak botere-harreman desorekatuak sortzen dituenen, desberdintasun edo berdintasunik eza bihurtzen da aldea. Gai horrek lotura estua du “beste” baten ideiarekin, modernitatearen proiektu zibilizatzailearen esparruan.

Dekolonizatzeak kolonialtasuna gainditzea esan nahi du, eta begirada Europara itzultzea eskatzen du, gure pribilegioak aitortuz. Horrela adierazten du Axel Rojasek: “Onartzen ez bada ziurtasun horren sortzailea geopolitika globalean betetzen den leku pribilegiatua dela, Europa ezin izango da deskolonizatu” (2018:11).

Errealitatea ezagutzen dugu eta geure iruditeritik abiatuta eraikitzen dugu mundua; iruditeria hori, aldi berean, aurre egin nahi diogun modernitatearen proiektu horren bitartez eraikia da. Askotariko zapalkuntzen naturalizazioa argitzeko gai izan behar dugu, zalantzan jarri behar dugu Europak munduan duen lekua, eta onartu behar dugu gure pribilegioak “beste” esaten diegunen gaineko zapalkuntza historikoaren ondorio direla. Horrek aldaketa erraztuko du, zalantzarik gabe.



Hegoa (2017). Horma-irudia Bogotako La Candelaria auzoan.

Kolonialtasuna desikasteko moduak funtsezkoak dira Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamenean. Honako elementu hauek oinarri interesgarriak dira hezkuntza-prozesuetan kolonialtasuna gainditzeko:

- Kontzientziaren planora mugatzen ez den eta gorputzak, emozioak eta bihotzak osatzen dituen ezagutzaren zentzua barneratzea.
- Aniztasuna, desberdintasuna eta konplexutasuna ezaugarri dituen ezagutza aintzat hartzea, horizontaltasunaren ikuspegitik eta hierarkiei buru eginez.
- Ezagutzeko modu anitz aitortzea. Oraindik ere isilik dauden beste lurralde, herri eta gizarte-kolektibo batzuen esparru epistemikoak txertatzea.
- Eurozentrismoari eta modernitateari lotutako ezagutza akademikoa sortzeko irizpideak zalantzan jartzea.
- Arrazakeriaren aurkako pedagogia ikastea, eurozentrismoari eta gure iruditeriaren eta diskurtsoen nagusitasunari aurre egiteko.

### 2.3. Feminismo kritikoak eta interseksionalitatea

Sustrai feminista kritikoetan oinarrituta eraikitako ezagutza funtsezkoa da gizarte eraldatzeko hezkuntzaren proposamenean. Feminismoak proiektu politikoak dira, eta aurre egiten diete ezagutzaren ekoizpen-, transmisio- eta antolaketa-prozesuei eusten dieten ideologia hegemonikoei. Desberdintasunaren erreproduktio soziala eta menderakuntza-sistemen arteko erlazioa ulertzen laguntzen digute, eta orobat laguntzen digute diskurtsoen unibertsaltasuna zalantzan jartzen eta aldaketa kulturala sustatuko duten estrategiak bilatzen.

Ikuspegi interseksionalak adierazten du zenbateko muga den, emakumeen mendekotasuna ulertzeko, arreta soilik generoan jartzea. Generoa beste identitate batzuekin (etnia, klasea, adina...) nola gurutzatzen den ulertzea lagungarria da emakumeen zapalkuntza/pribilegiozko bizipenak ikusarazteko eta errealitatea modu konplexuagoan interpretatzeko. Interseksionalitatea ez da zapalkuntzen batuketa bat, horien artikulazioa baizik. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak, printzipio hori oinarri hartuta, gure azterketetan eta ekintza politikoko proposamenetan gehien ikusten/falta diren kategoriak berrikustea proposatzen du.

### 2.4. Askotariko subjektuen arteko harremana, elkarrizketa eta artikulazioa

Ikaskuntza elkarrekikoa eta aberasgarria izango bada, beharrezkoa da ezagutza kritikoa sortzen duten subjektuen artean harreman- eta elkarrizketa-prozesua sortzea.

Hezkuntza-sistema neoliberaletako ikasleen aurrean irakasleek duten harreman hierarkiko, autoritario eta boterezkoaren aurrean, jakintza partekatuen eta baterako pentsamenduaren agertoki gisa ulertu behar da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamena. Subjektu guztiek dute ezagutza, eta ikasketa aberasgarriagoa da emaitza. Ikuspegi horretatik, hierarkia horizontaltasun bihurtzen da, eta "norbaiten gaineko" boterea kolektiboki eraikitzeko gai den "norbaitekin" sortzen den botere bihurtzen da.

Baina Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza ez dagokio hezitzailearen eta ikaslearen arteko elkarrizketari eta komunikazioari soilik. Aldaketa sozialerako garrantzizkoa den ezagutza eratzeko garrantzirik gabekotzat jo diren beste subjektu batzuen historia aitortu behar da, haien jakintzak, ekarpenak eta esperientziak gaur egun ere hala izaten jarraitzen baitute. Zientzia arrazional objektibotik eta unibertsaltetik urrun dauden esparru epistemikoak sustatzen dituzten eta lurraldeetan bertan esperientziarekin eta gizarte-borrokekin lotutako hezkuntza-, ikerketa- eta ekintza-estrategiak garatzen dituzten gizarte-erakunde eta -kolektiboez ari gara. Artikulazio-lana funtsezkoa da sistemari aurre egiteko eta hezkuntza-proposamen honen helburua lortzeko: gizartearen eraldaketa.

Metodologia eraldatzaileekin lotura duten egiteko, erlazionatzeko eta ezagutzeko beste modu batzuk. Entzutean, elkarrizketan eta ezagutzaren eta ekintzaren eraikuntza kolektiboan oinarritutako lan-metodologiak. Taldeak garrantzizko esanahia hartzen du ekoizpen kolektiboari dagokionez, eta, aldi berean, lotuta dago esperientziarekin eta errealitate sozialarekin.

## 2.5. Eraikuntza komunitarioa. Kolektiboaren eta komunitarioaren zentzua berrikastea

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak komunitatearen eraikuntza sustatzen du, eta gizarte-erantzukizuneko kultura du helburu.

Modernotasunaren proiektuak komunitateak desegituratu ditu, eta galdu egin da gizarte demokratiko, bidezko eta iraunkorrak eraikitzeke gizarte-loturek duten garrantzia. Kapitalismoak kontsumoaren kulturaren eskakizunetara murrizten ditu herritarren betebeharrak. Hiperkontsumoak gizarte-deskonexio hori indartzen du eta arduragabekeria moralaren kultura sustatzen du. Santiago Álvarezek *Loturen Desegite Handia* aipatzen du:

*Indibidualismo lehiakorrak, desberdintasunak, hirigintza sakabanatuak eta nolabaiteko gizarte-kohesioa bilatzen zuten politiken aurkako erasoek egin dute gainerakoa. Natura kontsumitzeko eta degradatzeko Azelerazio Handiarekin batera, lotura eta egitura soziokomunitarioen Desegite Handia ere ikusi dugu (2022:10).*

Kapitalaren onura indibidualistaren aurrean haren alderdi komuna defendatuko duten gizarte-proiektu kolektiboak behar ditugu. Gai izan behar dugu gure bizitza elkarrekin eta naturarekin nola antolatuta imajinatzeke. Horretarako, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegiak dimentsio etikoa berreskuratzen du, erantzukizun sozialak gaur egun munduan hartzen duen zentzuari buruz eztabaidatzeko. Azken batean, irakasten du subjektuak ez daitezela bazterrean geratu, beren iritzia adieraz dezaten eta komunitatearen ongizatearen aldeko konpromisoa har dezaten. Ikasgelan interes handiko gogoeta hori egiteko, ezinbestekoa da gizarte-mugimenduen jakintza komunitarioekin elkarrizketan aritzea.

## 2.6. Gizarte-aldaketako prozesuetan parte-hartzea

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamenak komunitateen bizitza politikoan eta sozialean parte hartzen eta ekintza emantzipatzaileak bultzatzen laguntzen du.

Ezagutza kritikorako trebetasunak sortzea da eraldaketaren gakoa, horiek ekarriko baitute parte-hartze aktiboa eta konprometitua lurraldeetan sortzen diren gizarte-prozesuetan. Politikoaren ikaskuntzarekin lotu behar da parte-hartzea, hau da, eragiten digun errealitateari, gertatzen diren arazoei eta horiei aurre egiteko ekintzei buruz pentsatzearekin. Bizi garen munduaren parte garena ulertzeak ahalmena ematen digu mundu horren eraldaketan parte hartzeko.

Modu kritikoan pentsatzeak eta modu aktiboan parte-hartzeak gure etorkizunaren agintea gure gain hartzeko eta zibilizazio-ordenaren aldaketa eragiteko baldintzak eskaintzen ditu. Aldaketa horren ondorioz, dokumentu honen beste pasarte batean adierazi bezala, errotik aldatuko da gaur egungo hezkuntza-eredu neoliberala. Jendeak eraldaketa horretan parte hartzea funtsezkoa da, Axel Rojasek dioenez: "Hezkuntza-proiektua eraldatzeko, hezkuntzaren alde mobilizatu behar da, gizarte zibilak masiboki inplikatu behar du" (2018:12).

### 3. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza, abian den prozesua

Aurreko karakterizaziotik eta funtsezko printzipioen deskribapenetik abiatuta, gizarte-erlaketako prozesuetan funtsezkotzat jotzen ditugun borroka batzuen ezaugarri pedagogiko nagusietako batzuk berreskuratuko ditugu jarraian. Borroka horiek interes berezikoak dira (guretzat), eragin globala nahiz tokikoa dutelako. Borroka bakoitzeko, hainbat esperientzia biltzen ditugu (batzuk gure lurraldean abian jarriak), zeinak agerian uzten baitute atal honen izenburuan adierazten den ideia: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza abian den prozesua da. Gainera, jardun horiek orain arte adierazi dugunaren adibide dira: hezkuntza eraldatzailea sozializazio kritikoko prozesu bat da, zeina gertatzen baita edozein "denbora eta lekutan" eta zeinetan eragiten baitute (edo eragin baitezakete) komunitate bat osatzen duten subjektu askok. Bestela esanda, "Hezkuntza sozializazio kritikoko prozesu zabala da, bizitza osoa barne hartzeko espazio formaletatik harago doana" (Gema Celorio, 2018:18).

#### 3.1. Borroka feministen ekarpen pedagogikoak

Mugimendu feministen borrokei esker sistema hegemonikoaren eta horren ondorioen irakurketa kritikoa eta konplexua egin ahal izan da. Paulo Freireren ikuspegiaren arabera, subjektuek beren errealtatearen irakurketa kritikoa egiteko duten gaitasuna garatzea berez da alfabetatze politikorako proiektu bat, eta, beraz, hezkuntza emantzipatzaileari dagokion prozesu bat, protagonistei aukera ematen diena beren errealtatean jarduteko eta errealtatearen aldaketarako gaitasunak garatzeko.

Feminismo kritikoen (ekofeminismoa, ekonomia feminista, feminismo beltzak, dekolonialak, transfeminismoak, etab.) eta ikuspegi interseksionalaren bidez, proposamen teoriko feministak elikatzen joan dira, oro har, sistema eraldatzea premiazkoa dela adierazten duten bi arazo komun definitzeko: alde batetik, zapalkuntzen<sup>6</sup> eta krisi ugarien<sup>7</sup> artean dagoen lotura, eta, beste aldetik, planetaren beraren<sup>8</sup> eta bertan bizi garen izakion bizitzari buruz egiturazko gatazka konponezin bat duen sistema baten aurrean egotearen ziurtasuna (iraunkortasunari, duintasunari eta justiziari dagokienez).

Arazo komun horiek hainbat subjektoren arteko harremanari, elkarrizketari eta artikulazioari esker identifikatu ahal izan dira; izan ere, aurreko atalean adierazitakoaren arabera, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren printzipioetako bat da.

Kontuan hartuta gizartea aldatzeko proposamen orotan aldatu nahi den errealtatea ezagutu behar dela trantsizio hori sentitu ahal izateko, "bizitzaren oinarri materialari balioa kentzen eta instrumentalizatzen duen paradigma patriarkala zalantzan jartzen bada (...), muga mentalak hautsi eta pentsaezina dena pentsatzeko askatasuna berreskura liteke" (Bosch, 2010: 55). Beste era batera esanda, ezagutza feministek aukera ematen dute "zalantzan ezin jar daitekeena" zalantzan jartzeko eta, horrekin batera, sistema patriarkala desnaturalizatzeko (sistema kapitalista, estraktibista, biozida eta kolonial hegemonikoari lotua ezinbestean), eta, era berean, beste eredu batzuetara igarotzeko aukera emango diguten alternatibak ere in ahal izateko eremu emankorra sortzeko. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza-proposamenaren printzipioen ildotik, "kapitalismoa desnaturalizatzeko" ariketa bat da honako hau; funtsezko ekintza, printzipio honen deskribapenean aipatzen den bezala, "justiziaren, duintasunaren eta iraunkortasunaren printzipio etikoak oinarri hartuta, beste modu batera eraikitzeko, bizitzeko eta elkarbizitzeko aukera edukitzeko".

COVID-19ak eragindako pandemia-egoera eta krisialdien larriagotzea, batez ere zainketen krisiarena, "une erabakigarria izan zen hainbat euskal kolektibo feministarentzat, gizartean inflexio-puntu bat sortu baitzen zaintzaren inguruko kontzientziazioari dagokionez" (Euskal Herriko Koordinatzaile Feminista, 2022).

---

6 Interseksionalitatearen teoria funtsezkoa izan da zapalkuntzen eta pribilegioen arteko harremanaren azterketa egiteko.

7 Zibilizazio-krisien eta krisi ekologikoei buruz ari gara (aurretik, 1. puntuan, azalduak).

8 Besteak beste, Cristina Carrasco, Yayo Herrero eta Amaia P. Orozcok lantzen duten kapitala-bizitza gatazkari erreferentzia eginez.



Horretarako, elkarrizketa kolektiboko prozesu bat jarri da abian, *Zainketen sistema publiko-komunitario feminista baterantz*<sup>9</sup> abiatzeko oinarriak finkatzeko helburuarekin. Gizartea eraldatzeko proposamen bat da, zaintza-sistema (bir)pentsatzea proposatzen duen ekimena, elkar bizitzaren gaineko erantzukizunetik eta desberdintasun sakonei aurre egiteko konpromisotik abiatuta. Adierazten dutenez, “hortik abiatuta, ‘zaintzaren eguneroko politika’ izenda daitekeenaren sakoneko eraldaketa dugu helburu: gure etxe, harreman, kale eta herrietako egunez egunekoa, alegia. Mikropolitika hori beti izan da feminismoen apustu argia, eta, gure ustez, ezinbestekoa da sistema osoa iraultzeko.”

“Eraikuntza komunitarioaren” adibide argia da –Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzaren proposamenaren oinarri den beste printzipioetako bat– gaur egungo zaintza-sistema birpentsatzeko prozesu herrikoi bat abiatzea, beste publiko baterantz, publiko komunitario eta feministarantz, egiteko helburuarekin. Azken finean, zaintza berriz ikasteko eta aintzat hartzeko prozesu bat proposatzen du, estrategia kolektibo gisa, komunitatea sortzeko eta erreproduzitzeko beharrezko tresna gisa, gizarteko eragile guztien erantzukizunetik abiatuta.

Zaintza-sistemaren sakoneko eraldaketa hori gertatuko bada, ezinbestekoa da aldaketa kulturala, eta aldaketa hori, aldi berean, prozesu pedagogikoen bidez gauzatzen da; kasu honetan, mugimendu feministaren jardunak berak uzten duen hezkuntza-arrastoaren parte gisa gertatzen dira prozesu horiek. Puntu honetan, *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko V. Biltzarraren*<sup>10</sup> oinarri izan zen ideietako bat nabarmendu behar da: gizarte-mugimenduek hezitzeko duten gaitasuna, edo, bestela esanda, gizarte-mugimenduen hezkuntza-arrastoa (Juanjo Celorio, 2013).

Baieztape horrek ez die soilik erreferentzia egiten Gizarte Mugimenduek bultzatzen dituzten prestakuntza-edo sentsibilizazio-jarduerei; erreferentzia egiten die, halaber, horiek antolatze moduari berari, sortzen dituzten artikulazioei, ezagutza kolektiboan nola eraikitzen duten, sortutako jakintzak nola zirkulatzen duten, nola proposatzen dituzten forma kolektiboak erresistentzia eraikitze, sistema hegemonikoaren alternatibak sortzeko... Gizarte-mugimenduek abian jarritako ekintza kolektiboek botere handia dute hezkuntzan, eta eragin handia dute, orobat, subjektuen sozializazio kritikoko prozesuetan.

### 3.2. Elikadura-subiranotasunaren aldeko mugimenduaren ekarpen pedagogikoak

Elikadura-subiranotasunaren aldeko borroka hainbat esperientzian gauzatu da, mundu mailan, besteak beste La Via Campesina, Nazioarteko Nekazari Mugimendua<sup>11</sup>. Gaur egun 200 bat erakunde inguru (nekazariak, indigenak, ekoizleak, landa-eremuko emakumeak, nekazariak, gazteak) biltzen dituen nazioarteko mugimendu horrek herriek elikagaiak banatzeko eta kontsumitzeko politika eta estrategia propioak finkatzeko eskubidea defendatzera bideratzen du bere borroka, betiere iraunkortasuna eta nekazaritza eta ekologiako ekoizpena oinarri hartuta, bai eskala txikian bai eskala ertainean. Via Campesinak “elikadura-subiranotasunaren” kontzeptu politikoa sortu zuen, eztabaida kolektibo baten bidez. Kontzeptu horrek proposamen politiko oso bat jasotzen du, elikagaien ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sistemak (bir)pentsatzeko eta horiek eraldatzeko.

La Via Campesinak egindako lan artikulatuak eta gizarte-oinarrietatik abiaraziak adibide ezin hobea ematen digu gizarte-aldaketako prozesuetan parte hartzeak duen garrantziari dagokionez (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren beste printzipioetako bat).

Elikadura-subiranotasunaren inguruko eraldaketa-estrategien artean, gure lurraldean, Urduñaren kasua nabarmentzen da; izan ere, azken bi urteetan, lurraldeko ekoizleen, erakundeen eta gizarte-eragileen

9 Zaintzako sistema publiko komunitario feminista baterantz. Laburpena. Hemen eskuragarri: <https://colectivaxk.net/wp-content/uploads/2022/07/Zaintzako-sistema-publiko-komunitario-feminista-baterantz.pdf>

10 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzara 2021eko azaroaren 18an, 19an eta 20an izan zen, Gasteizen. Ekimenari buruzko informazioa honako webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.congresoed.org/eu>

11 Mugimenduari buruzko informazio gehiago webgune honetan: [www.viacampesina.org](http://www.viacampesina.org)

kolektiboak tokiko ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredua aldatzeko prozesuan sartuta daude bete-betean. Agroekologiaren eta elikadura-subiranotasunaren esparruan, udalerrri horretako proiektua lehen sektoreari balioa emateko apustu gisa jarri zen abian, inguru horretako desindustrializazioaren ondoriozko landa-eremua jendez hustu ez zedin.

Abeltzaintza eta nekazaritza ekologiko eta jasangarriaren alde egiteko ahalmena ikusita, *Ekoizpen Urduña* aholkularitza-zerbitzua jarri zen abian. Udalerriko trantsizio agroekologikoko prozesuetarako laguntza-tresna bat da, inguruko eragileei zuzendua (nekazariak, abeltzainak, ekoizpen-etxeak...).

Ekoizpen- eta elikadura-eredu iraunkor eta agroekologikoetarantz joateak balio ekologiko jakin batzuen aldeko apustua egitea ez ezik, konnotazio sozial eta politiko zehatza ere badakar. Hori dela eta, beharrezkoa da prozesu pedagogikoak abian jartzea, biztanleria subjektua trantsizio-prozesuez ohartu eta jabetu dadin. Premia horretaz jabetuta, Urduñan hainbat espazio eta estrategia jarri zituzten abian, adibidez, agroekologiako foro bat (elikadurarekin, ekoizpen iraunkorarekin eta merkaturatze-kate laburrekin zerikusia duten gaietan prestatzeko eta sentsibilizatzeko) eta komunikazio-kanpaina bat<sup>12</sup>.

*Ekoizpen* zerbitzuaren emaitza positiboek eta abian jarritako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza-prozesuak<sup>13</sup> erronka berriak sortu zituen Urduñan, besteak beste, agroekologiaren aldeko apustuan sakontzea eta tokiko elikadura-sistema bat garatzeko urratsak egitea.

Proiektua zabaltzen eta konplexuago egiten joan den heinean, askotariko subjektuen arteko elkarriketa eta artikulazioa funtsezkoa izan da prozesua komunitateko pertsona guztien ekarpenekin (ikuspegiak, beharrak, interesak) aberastu ahal izateko. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-estrategia espezifikoa sortu diren arren, ezin da ukatu eraldaketa-prozesu osoak, berez, esperientzia pedagogiko bat eskatzen duela.

Urduñaren kasua aipagarria iruditzen zaigu, halaber, eraikuntza komunitarioan duen garrantziagatik:

*“Kultura menderatzaileak pertsonak, kolektiboak eta komunitateak (...) indibidualizatzeko eta despolitizatzeko duen jarreraren aurrean, eraikuntza komunitarioa ekintza errebeldea eta kontrahegemonikoa da. Komunitatearen eraikuntza hezkuntza-prozesutzat hartzen dugu, zeina bideratuta baitago komunitatea indartzera, bere gizarte-proiektua eraikitzeaz jabetzen den subjektu politiko gisa (...). Eraikuntza komunitarioak bizikidetzat sortzen duen gizarte-lotura sendotzen laguntzen du, eta horrek kide izatearen, erantzukidetasunaren eta elkarrekiko elkartasunaren zentzua indartzen du kideen artean. (...) Horregatik guztiagatik, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegitik, komunitatearen eraikuntza ezinbesteko dinamika pedagogikoa da”* (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra, 2022)<sup>14</sup>.

### 3.3. Giza eskubideen aldeko borroken ekarpen pedagogikoak

Giza eskubideek pertsonen duintasuna babesteko berme-esparru unibertsalizatu bat<sup>15</sup> proposatzen dute. Giza izaerari datzekion ahalmenak dira, besterenezinak, pertsona guztien bizi-beharrak onartzera eta babestera bideratuak, baldintzarik gabe.

---

12 Kanpainaren esparruan, [www.regresandoalfuturo.org](http://www.regresandoalfuturo.org) webgunea sortu zen. Bertan biltzen da udalaren trantsizio agroekologikoari dagokion prozesua eta “Etorkizunera itzultzen. Urduña elikadura burujabetzaren bidean” dokumentala. Eskuragarri webgune honetan: <https://labur.eus/SsttZ>

13 Gure ustez, herrian abian jarritako “kontzientziazio- eta prestakuntza-prozesua” Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza prozesu gisa defini daiteke.

14 “Komunitatearen eraikuntza” Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko V. Biltzarraren ildo estrategikoetako bat izan zen. Informazio gehiago webgune honetan eskuragarri: <https://www.congresoed.org/vcongreso/mente/>

15 Termino hori erabiltzen dugu giza eskubideak unibertsalak ez direla gogorarazten diguzun korrante kritikoen ekarpenak ikusarazteko, hau da, ez direla esparru baliiodun edo egokia planetan bizi diren herri guztientzat, baizik eta halakotzat ezarri direla (botere-harremanen bitartez), hau da, unibertsalizatu egin direla.



Giza eskubideek Estatuaren baldintzatzaile gisa jardun beharko luketen arren, eragin erretorikoa ere badute. Arturo Orregok dioenez, "giza eskubideen inbertsio ideologikoa" hezkuntzaren tradizio kritikoa aurreratzen ari zen zerbait da. Filosofoak azaldu duenez, inbertsio hori inperialismoak eta eskubideen urraketak giza eskubide horien ustezko defentsan babesten direnean sortzen da. Horren arrazoia da, neurri batean bederen, giza eskubideak helburu bihurtu direla eta ez baliabideak epaitzeko prisma bat" (Orrego, 2021:4).

Helena Maleno ikerlari eta defendatzailearen arabera, eskubideen inbertsio horren adibide garbia da Espainiako Estatuaren Hegoaldeko Muga; bertan, "europarren eskubideak babesteko" aitzakiarekin, eskubiderik gabeko lurralde bat sortu da. Igarotzen diren pertsonen eskubideen urraketa sistematikoak agerian uzten du "giza eskubideen kontzeptua pribilegioei dagokiela, eskubideei baino gehiago" (Maleno, 2021:4).

Egoera horren aurrean, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak eskubideen ikuspegia zer den eta gure jardunean nola gauzatzen den hausnartzen du. Zeregin horretan, ezinbestekoa da hezkuntza-proposamen honen oinarri den printzipioetako bat kontuan hartzea: izateko, ikasteko eta jarduteko modu koloniala desikastea (2.2 puntuan landua).

Lehen aipatu bezala, "deskolonizatzeko kolonialtasuna gainditu behar da, eta Europara itzuli behar da begirada, gure pribilegioak aitortuz". Hezkuntza eraldatzailea funtsezko estrategia da eginkizun horretan hainbat alderdi zalantzan jartzeko, hala nola migratzaileen kriminalizazioa, mugen legitimazioa, mugaren kontrola kanpoko eragileen esku uztea eta merkantilizazioa, migrazio-nekropolitika, migratutakoak eta igarotzen ari diren pertsonen eskubideen urraketa hutsaltzea, gorroto-diskurtsoak ugaritzea...

Malenok gogorarazi duenez, hainbat ekimen daude martxan, migratutako pertsonak buru dituztela eta gorroto-kontakizun horiek deseraikitzen eta narratiba berriak eraikitzen laguntzen dutenak.

Besteak beste, Saltzaile Ibiltarien Herri Sindikatuak, Manteros<sup>16</sup>, bere "Top Manta" arropa-linea atera du, bere eskubide sozial eta ekonomikoak aldarrikatzeko; lan egiteko eskubidea eskatzeko *exmena*<sup>17</sup> direlakoan borroka; edo sexu-abusuak, esplotazioa... salatzen diharduten marrubiaren alorreko Huelvako jernalero emakumeak.

### 3.4. Arrazismoaren aurkako mugimenduaren ekarpen pedagogikoak

Sare sozialak garrantzi handiko sozializazio-guneak dira<sup>18</sup> –belaunaldi berrientzat bereziki–. *Black Lives Matter* (BLM) mugimendua sare sozialetan hartu zuen forma (#BlackLivesMatter *traola* erabiliz) eta afrikarren ondorengo ekintzaile gazteen ekimenez sortu zen, hainbat gazte estatubatuar afroamerikarren hilketa salatzeke. Mugimendu horrek ondo erakusten du zer ahalmen duen zapalkuntza berdina jasaten dituzten pertsonen artikulazioak eta nolako garrantzia duten gune birtualek mobilizazio sozialeko prozesuetan.

Mugimendu horrek –gaur egun, 80 herrialdeetan baino gehiagotan dago, kontinente guztietan banatuta– lortu du ikusezin bihurtutako eta gutxietsitako subjektuen historia ikusaraztea eta garrantzia ematea, eta afrikarren ondorengoenganako indarkeria esplizituko egoerak salatzeaz gain, argitara atera du sistema kolonialaren euskarri diren esparru sozial, politiko eta ekonomikoak hartzen dituen egitura arrazista osoa.

---

16 Sindikatuari buruzko informazio gehiago: <https://manteros.org/>

17 Laguntzarik gabeko adin txikikoak izandakoak, nazioarteko babesa duten zerbitzu estataleko zainduak.

18 Kontuan hartuta sare sozialak gero eta sozializazio-gune garrantzitsuagoak direla (batez ere belaunaldi berrien bizitzetan), aintzat hartu behar dira Gizarte Eraldaketako Hezkuntzaren alorreko gure estrategiak proposatzen ditugunean. Horrek paradoxa eta erronka handia dakarkigu. Alde batetik, paradoxa da sistema hegemonikoaren logikak zalantzan jartzea edo horiei aurre egitea enpresa multinazional handiek kudeatutako egitura digitalak erabiliz (sare sozialei erreferentzia eginez). Bestalde, erronka bat planteatzen dute Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza prozesuek espazio horietan eragina izateaz gain, enpresa handiek xurgatzen ez dituzten beste espazio birtual batzuk sustatu ahal izatea.

BLM mugimenduaren sortzaileetako batek, Patrisse Khan-Cullorsek, *When they call you a terrorist* (Terrorista esaten dizutenean) liburu autobiografikoan azaltzen duenez, arrazakeria AEBko hezkuntza-sistemaren edo espetxe-ereduaren oinarri den logikan txertatuta dago. Era berean, arrazakeria beste zapalkuntza-sistema batzuekin nola uztartzen den azaltzen du egileak (adibidez, sexu- eta genero-identitate disidenteeekin lotuta); era horretara, gizartea eraldatzeko prozesu integralik gabe aurre egiteko zaila den desberdintasun sistemikoa sortzen da. Horrela, Khan-Cullorsek bere gorputz-lurraldetik sortzen diren ezagutzak erabiltzen ditu (bere esperientziarekin eta bizi dituen borroka sozialekin lotuak) inguratzen duen mundua ulertzeko eta interpretatzeko eta harengan jardungo duen esparru epistemiko alternatibo bat sustatzeko.

Gure lurraldean, arrazakeriaren aurkako borrokan –elkartasun adibide ugari dauden arren–, Ongi Etorri Errefuxiatuak<sup>19</sup> erakundeak Euskadiko Iparraldeko Muga ikusarazten egindako lana nabarmendu nahi genuke.

Espainiako eta Frantziako estatuak muga natural batez banatuta daude: Bidasoa ibaia. Hainbat zubik zeharkatzen duten arren, "Frantziako Polizia Nazionalak migratzaileei pasabide guztietan hainbat urtez Hexagonorako sarrera eragozteko jarritako harresi ikusezinenaren ondorioz –haiekin itzulketak egiten ditu beroan, edonoren aurrean–"<sup>20</sup>, migratzaile ugari hil dira, beren helmugara ibaia zeharkatuz iristen saiatu behar izan baitute.



Ongi Etorri Errefuxiatuak (2021). Atxuriko gazte migratzaileak Bidasoara. <https://ongietorrierrefuxiatuak.info/es/2021/08/20/jovenes-migrantes-de-atxuri-al-bidasoa/>

Ongi Etorri Errefuxiatuak elkartearen lana funtsezkoa da migrazio-krisian dugun erantzukizuna eta gatazken gorakada ulertzeko. Plataforma horrek egindako lanak lagundu digu ulertzen, adibidez, *Zergatik hasten*

19 Plataforma horren lanari buruzko informazio gehiago: <https://ongietorrierrefuxiatuak.info/es/>

20 Rioja, Iker (2021eko azaroak 28): Endarlatsa, beste gune beltz bat migratzaileentzat, Frantziako mugaren aurrean. Eldiario.es. Hemendik hartua: [https://www.eldiario.es/euskadi/endarlatsa-punto-negro-migrantes-muro-policial-frontera-francia\\_1\\_8533978.html](https://www.eldiario.es/euskadi/endarlatsa-punto-negro-migrantes-muro-policial-frontera-francia_1_8533978.html)

*da gerra hemen*<sup>21</sup>. Maila pedagogikoan, horrek aukera ematen du kontzientzia kritikoko prozesuak abian jartzeko, gure hurbileko errealitateak urrunagoko beste errealitate batzuekin lotzeko (adibidez, arma-enpresak Iparralde globalean izan duen gorakada eta Hego globaleko gatazken garapena) eta tokiko arazoak eta arazo globalak lotzeko (adibidez, gazte migratzaile baten heriotza Iparraldeko mugatik igarotzean eta migrazio-krisi globala).

### 3.5. Ekarpen pedagogikoak Unibertsitate kritikoaren proposamenetan

Modernitatearen proiektuarekin sortutako pentsamendu-esparru mugatzaileen iraunkortasuna oztopo bat da gaur egungo garapen-ereduak planteatzen dituen erronkei tokiko erantzunak-erantzun globalak irudikatze eta egituratzeko. Bizitzaren iraunkortasuna ziurtatuko duten bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko modu berriak zehaztera bideratutako estrategia politiko-pedagogikoak zabalduko badira, beharrezkoa da bat egitea gizartearen eraldaketarako ezagutza garrantzitsua proposatzeko gai izango diren begiratzeko, pentsatzeko eta jarduteko beste modu batzuekin.

“Gizarte-aldaketarako garrantzizko ezagutza” hori sortzeko funtsezko subjektua da unibertsitatea, baina ez bakarra. Alde horretatik, Unibertsitateak onartu behar du badirela aldaketarako ezagutza garrantzitsua sortzen duten beste eragile batzuk ere, eta beharrezkoa dela haiekin elkartasunean lan egitea.

Unibertsitate kritiko eta sozialki konprometitua sortzeko ekimen askok kultura akademikoaren eta ekoizpen sozialaren arteko artikulazioaren boterean jartzen dute arreta. Aliantza hori ezinbestekoa da helburu hauetarako: elkarrekin gogoeta egitea ezagutza emantzipatzailea sortzeko beharrezkoak diren giltzarri kritikoei buruz; ekintza kolektibo eraldatzailearen prozesuetatik eratorritako ikaskuntzak ezagutzea; eta praktikatik ekarpen teorikoak ateratzea.

Hegoako Hezkuntza Taldeak, Caucako Unibertsitateak (UNICAUCA) eta Hego Kolonbiako Unibertsitateak (USCO) Articuladxs proiektua<sup>22</sup> jarri dugu abian, kultura akademikoaren eta ekoizpen sozialaren arteko artikulazio-logikak esperimendatzeko, ezagutza emantzipatzailearen elementu kritikoei buruz gogoeta egiteko eta ekintza kolektibo emantzipatzailearen prozesuetarako ikaskuntzak eskaintzeko.

Ekimen esperimentalak da, ezagutza akademikoaren eta sozialaren artean zubiak sortzera bideratua, gaur egungo erronka sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturei aurre egiteko beharrezkoa den ezagutza kritikoa sortzeko bidean aurrera egiteko artikulazioak sustatzeko xedearekin. Ekimen horrek hainbat jarduera proposatzen ditu (ikerketak konprometitua sortzeko prozesuak barne, askotariko eragileen arteko topaguneen sorrera, etab.), aldi berean egiten ari direnak hiru unibertsitateetan, esperientzia bakoitzetik eratorritako ikaskuntzak bateratzeko (alderatzeko eta kontrastatzeko) eta parte hartzen duen lurraldearekin konprometituta dagoen unibertsitate bat eraikitze bidean aurrera egitea ahalbidetuko diguten gakoak lortzeko.

---

21 “La guerra empieza aquí” Joseba Sanzek zuzendu eta Ongi Etorri Errefuxiatuak eta La Guerra Empieza Aquí (LGEA) plataformek ekoiztutako dokumentala da. Hemen eskuragarri:

[https://www.youtube.com/watch?v=wsTvrA41FH4&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=wsTvrA41FH4&feature=emb_logo)

22 Articuladxs proiektuari buruzko informazio gehiago: <https://www.hegoa.ehu.eus/es/projects/27>

## 4. Ondorio gisa. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren erronkak eta iradokizunak

*Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruzko V. Biltzarraren aktetan hainbat erronka planteatu genituen; erronka horiei egin behar diegu aurre orain hezkuntza- eta gizarte-eragileek, baina baita sustatu nahi ditugun beste eredu batzuetarako trantsizioei begira ere.*

*Nahiz eta gero eta argiago dugun zein ereduri aurre egin nahi diogun, hitz egiten jarraitzen dugu zer, nola eta norekin eraiki nahi dugunari buruz. Horretarako, hezkuntza berria behar dugu. Gorputzak eta lurraldeak aintzat hartuko dituen hezkuntza. Komunitatean eta guztion onerako eraikitako hezkuntza. Hezkuntza bat zeinetan aurrea hartzen duen ikaskuntzak jarrera kritikoan kokatuko baikaitu. Izateko, egoteko, komunikatzeko eta beste mundu batzuk eraikitze moduen aniztasuna bilduko dituen hezkuntza eta sare- eta aliantza-kultura. (Amaia del Río eta Iris Murillo, 2021:179).*

Izan ere, ekitaldi horretan izan ziren hitzaldi eta eztabaida guztiek iradokitzen dute Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan planteatzen diren erronken konplexutasuna eta aniztasuna. Zibilizazio-krisi baten aurrean gaude, eta gizarte-harremanak sortzen diren eremu guztiei eragiten die. Eredu globalaren eta tokikoaren krisia da. Komunitatean eta pertsonen hainbat alderdi, beren barneko zein gizarte-bizitzako espazioetan, ukitzen dituen krisia. Horregatik, Biltzar horrek lau ildo estrategiko nagusi zehaztu zituen hezkuntza-ekintzarako: kokatutako gorputzak eta lurraldeak; eraikuntza komunitarioa; susmatutako eta aurreratutako etorkizunak; sareak eta aliantzak. Eta Biltzarrean Espainiako Estatuko hezkuntzaren egoera eta horietako bakoitzari aurre egiteko erronkak islatu ziren.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak bere errealitatea erakutsi zuen horrela, baina baita bere asmoak ere. Bere errealitatea praxi baten moduan, egiteko ekintza bat. Abian den gizarte-ekintza. Dimentsio eta eragin ekonomiko, sozial, politiko, kultural, komunikatibo eta etikoa duen ekintza. Inpaktu handiagoa edo txikiagoa, baina benetakoa. Askotariko agertokiak ditu, baina elkarrizketa eta komunikazio kolektiborako irekia da. Beharbada ahula oraindik, egiturazko eraldaketari dagokionez, baina abian dagoen prozesu bat dela agerian uzten duten inpaktuekin. Halaber islatu zuen, era horretara, alternatiba izateko eta eredu nagusiaren garapen suizidari aurre egiten dioten ekimenekin laguntzeko nahia. Ekimen horiek dagoeneko ari dira aurrera egiten eta kolapsoa saihesteko eraldaketak eraikitzen.

Hezkuntza-eremuetan ez ezik, gizartean eta kulturaren eragin handia duten kritika- eta erresistentzia-guneetan ere aitortzen da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Tradizio horietako asko –apurtzaileak beren garaian eta joera bat abiarazi zutenak– zapaldu eta/edo baztertu egin zituzten. Hezitzaileen, ekintzaileen, komunikatzaileen, zientzialarien, pedagogoen, mobilizazioak eta diskurtso askatzaileak bultzatu zituzten artisten zerrenda luzea utzi digu historiak. Unean uneko botere hegemonikoei aurre egin dieten esperientziak. Era berean, ezarritako ordena era askotara saiatu da bultzatzaileak zapaltzen: atxilotetak, kanporatzeak, hilketak; beste batzuetan, isiltasunarekin edo haien mezuak eta proposamenak indargabetzera bideratutako estrategiekin. Hala ere, haien eragina atzeratzea baino ez zuten lortu, bizirik jarraitu baitute. Haien bulkada emantzipatzaileek indarrean jarraitzen dute, eta inspirazio-iturri dira, teoria eta praxi gisa, zibilizazio-krisi sistemikoaren aurrean. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza mugimendua tradizio horietan igartzen da eta omenaldia egiten die.

Alternatiba izateko asmo horretatik lantzen du eredu hegemonikoari, haren jardunei, estrategiei eta logikei aurre egiteko borroka- eta konfrontazio-estrategia, epe ertain eta luzerako begiradarekin. Etorkizuna egiten duten eta iraganeko joerekin gurutzatzen diren orainaldien kontzientzia duen begirada. Alderdi formalaz haratago eratutako hezkuntzaren begiradak, hezkuntza-ekintza egunerokotasunean, edonon, edonoiz eta edozein gizarte-dimentsiotan txertatuta dagoela aldarrikatuz. Agentzien asmoetan inskribatuta dago, baina baita eguneroko ordenaren/desordenaren erreproduktibotik eta komunikatibotik eratorritako ikaskuntzetan ere. "Ezkituko curriculum" indartsua osatzen duten gizarte-ikaskuntzak.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza honek argitu egin behar du, aurkitu, salatu eta ikertu. Ekintzaren modalitateak ikertu: esku hartzeko moduak, nork sustatzen duen, zer testuingurutan, zer prozesuren bidez, zer denbora-esparrutan, zer metodologiatatik, zer emaitzarekin, zer arrakasta, porrot eta erresistentzia diren garrantzitsuak, etab. Ikerketa horrek inplementatzen den prozesu sozial eta politikoei lotuta egon



behar du, bereizi gabe. Ekintzaren ikaskuntzetatik abiatuta ikertu behar du, eta jakintza-elkarrizketa gisa, jakintza zientifiko eta akademikoaren eta jakintza sozial eta herrikoiaren artean. Eragileek, komunitateek eta mugimenduek metatutako gizarte-ezagutzak, bai eta haien jardunetik, memoriatik, historiatik eta nortasunetik abiatuta ere.

Jakintza horiek ematen dute behar dugun aurretiazko ikaskuntzaren berri. Ikaskuntza aurreratua sortzen da etorkizuneko agertokiak pentsatzen ditugunean; agertoki horiek saihestu nahi ditugu, eta horien arabera antolatzen dugu gure orainaldian estrategia-multzo bat, horietara hurbiltzeko edo horiek saihesteko. Aurrez aurre dugunean krisi sistemiko hori gainditzeak dakarren erroka, aurrera egin behar dugu agertokiak aurreratuko dituen ziurgabetasunean; baina horrek ez gaitu blokeatu behar, baizik eta, aitzitik, bultzatu behar gaitu hondamendi kolektibo batera eramango gintuzketen agertokiak saihestuko dituen gizartera.

Hau da funtsezko galdera: nola zabaldu sozialki eta kontrahegemonikoki aurre-hartze emantzipatzaile horiek? Izan ere, orainaldian landutako aurrerapen horretatik –non erresistentziak lurra ukitzen duen– eraikiko ditugu beste etorkizun batzuk.

Botere hegemonikoak iruditeria bat inposatzen saiatzen dira, non erlazionala eta kolektiboa arriskutsutzat hartzen diren. Soilik posible da instituzionaltasunak artikulatzen dituen harreman pertsonal eta kolektibo horiek, eta produkzio, banaketa eta kontsumo kapitalisten logiketara egokitzen dituen. Jakintza/boterea metatzen duen instituzionaltasuna, hura mantentzera eta erreproduzitzera bideratua. Oraina eta haren interesak eta nahiak indartzen dituzten etorkizunen aurrerapenak bortizki inposatzen dituen jakitea/boterea.

Aurre-hartze ahalduntzaile batek asaldura behar du, oraingo ordenamendua ukatzeko, ez du komunitate landutakoa izan behar, eta, aldi berean, sormena behar du, bizitza duin baterako beste etorkizunak/orainak eraikitzeko.



Sainz de Murieta, Joseba (2016). Marie Toure, Plataforma Tiranteren "Tras la frontera".

Zeregin hori besterik gabe onkeriazkoa, boluntarista eta irreal ez delako ustea zabaltea Eraldaketarako Hezkuntzaren ekintza estrategikoen parte da. Existitzen den mugimendua da, martxan dago eta arrakalak

irekitzen ditu gero eta tentsio handiagoak dituen harresi batean. Hezkuntza horrek bide bat adierazten du, non desikasteko eta berrikasteko ekintzak prozesu pedagogikoa bera osatzen baitu.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza hori ez dago subjektu jakin batzuen esku bakarrik; aitzitik, denok gaude konpromiso horretara gonbidatuta. Baina batzuek, beren jardunagatik eta ekintza-espazioengatik, agentzia-gaitasun handiagoa dute Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan: elkartasunaren eta lankidetzaren eragileak, hezkuntzakoak, gizarte-lanaren alorrekoak eta jakintza zientifikokoak; kultura-eragileak, artearen eta komunikazioaren alorrekoak; gizarte-mugimenduetako ekintzaileak...

Era berean, ez dago egiturarik, denborarik, ezta espaziorik ere, lehentasuneko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan. Denbora eta leku oro, harreman sozialerako gune oro ezinbestekoa da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari ekiteko. Baina argi dago gune batzuetan inplikazio-intentsitateak handiagoak direla: erresistentziarako eta aktibismo sozialerako guneak, hezkuntza formalekoak, kalekoak, instituzionaltasun kritikokoak, herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenak...

Era berean, ezinezkoa dirudi metodologia zehatzak iradokitzea, baina badira, argi eta garbi, herri-ahalduntzearen pedagogiak. Ekintzak hezi egiten duela eta ikaskuntzak sortzen dituela –nahita edo nahi gabe– abiapuntu hartuta, honako hauek aipa daitezke: gogoeta kolektiboa, sumindura etikoa, praxi askatzailea, elkartasuna, utopiak berreskuratzea, "res publica" bizitzaren politika gisa barneratzea, komunitate-zainketak, historiaren eta gizarte-aurrerapenaren arteko artikulazio kritikoa... Azken batean, izaera emantzipatzailea duen hezkuntza proiektu baten eremu guztiak.

Eta hori guztia bizitzaren zaintza, planetaren iraunkortasuna eta etorkizuna guztiona delako, geurea delako, planeta-komunitate gisa dugun eskubidea delako eta justiziarikiko eta duintasunarekiko dugun konpromiso politikoaren adierazpena delako.

## 5. Bibliografía

- Álvarez Cantalapiedra, Santiago (2022). El malestar de nuestro modo de vida. *PAPELES de relaciones ecosociales y cambio global*. 158. zk., 5-12. or. Hemen eskuragarri: [https://www.fuhem.es/papeles\\_articulo/el-malestar-de-nuestro-modo-de-vida/](https://www.fuhem.es/papeles_articulo/el-malestar-de-nuestro-modo-de-vida/)
- Bosch, Anna (2010). *Mujeres que alimentan la vida*. Icaria, Bartzelona. 55. or.
- Cabaluz, J. Fabián (2020). Hitzaurrea, in Martínez Pineda, María Cristina eta Guachetá Gutiérrez, Emilio. *Educación para la emancipación. Hacia una praxis crítica del sur*. Bogota, CLACSO, Universidad Pedagógica Nacional, 11-15. or. Hemen eskuragarri: <http://biblioteca.clacso.edu.ar/clacso/se/20201006122520/educar-emancipacion.pdf>
- Celorio Díaz, Gema (2017). Educación emancipadora. Retos en el marco de la globalización neoliberal. *II Congreso Internacional de Educación para el Desarrollo en Perspectiva Latinoamericana*. UNIMINUTO. Hemen eskuragarri: <https://tinyurl.com/47hz4dt>
- Celorio Díaz, Juanjo (2013). *Educación para el Desarrollo en Transición – Educación para la Transición Emancipadora*. Hemen eskuragarri: [http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1816/Juanjo\\_2013\\_ED\\_para\\_la\\_transicion\\_completo.pdf](http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1816/Juanjo_2013_ED_para_la_transicion_completo.pdf)
- Celorio Díaz, Juanjo (2020). *Transitar de la Educación para el Desarrollo a la Educación para una Transición Emancipadora*. Bilbo, Hegoa. Hemen eskuragarri: <https://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/20967>
- Del Río, Amaia eta Murillo, Iris (2021). ¿Y ahora qué?, in *Actas del V Congreso de Educación para la Transformación Social, educar en la incertidumbre liberadora*. Bilbo, Hegoa, 167-179. or. Hemen eskuragarri: <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/550>
- Díaz Gutiérrez, Enrique Javier (2022). *Pedagogía antifascista. Construir una pedagogía inclusiva, democrática y del bien común frente al auge del fascismo y la xenofobia*. Bartzelona, Editorial Octaedro.
- EHNE; Bizilur; Etxalde (s.f.). *URDUÑA. Garapen-proiektua: agroekologia eta elikadura-burujabetza ardatz* in Alternatibak eta politika publikoak elikatzen [web]. <https://politikak-elikatzen.bizilur.eus/eu/>. Hemen eskuragarri: <https://politikak-elikatzen.bizilur.eus/eu/esperientziak/urduna-garapen-proiektua-agroekologia-eta-elikadura-burujabetza-ardatz/>
- Escobar, Arturo (2014). *La invención del desarrollo*. Popayán, Universidad del Cauca. Hemen eskuragarri: [https://www.unicauca.edu.co/editorial/sites/default/files/librosDigitales/la\\_invencion\\_del\\_desarrollo.pdf](https://www.unicauca.edu.co/editorial/sites/default/files/librosDigitales/la_invencion_del_desarrollo.pdf)
- Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Hegoa (2021). *V Jornadas de Educación para la Transformación Social. Derechos humanos, ¿derechos para todas? Una mirada crítica desde la educación (Relatoría)*. Irailak 24 eta 25 (On line). Hemen eskuragarri: <https://biblioteca.hegoa.ehu.es/registros/21557>
- Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Hegoa (2021). *V Jornadas de Educación para la Transformación Social. Derechos humanos, ¿derechos para todas? Una mirada crítica desde la educación (Bideoa)*. Irailak 24 eta 25 (On line). Hemen eskuragarri: [https://www.youtube.com/watch?v=6vx4AAKxu\\_U](https://www.youtube.com/watch?v=6vx4AAKxu_U)
- Euskal Herriko Koordinadora Feminista (2022). *Zaintza sistema publiko-komunitario feminista baterantz. Laburpen dokumentua*. Hemen eskuragarri: <https://labur.eus/TKhQV>
- Freire, Paulo (1970, 2005). *Pedagogía del oprimido*. Mexiko, Siglo XXI editores.
- Gure platera, gure aukera (2016). *Elikadura burujabetza Urduñan [web]*. [www.gureplateragureaukera.eus](http://www.gureplateragureaukera.eus). Hemen eskuragarri: <https://www.gureplateragureaukera.eus/elikadura-burujabetza-urdunan/>
- hooks, bell (2021). *Enseñar a transgredir. La educación como práctica de la libertad* (Marta Maloren itzulpena eta hitzaurrea). Madril, Capitán Swing.
- Khan-Cullors, Patrisse eta Bandele, Asha (2021). *Cuando te llaman terrorista. Una memoria del Black Lives Matter*. Madril, Capitán Swing.

- Marx, Karl (1845). *Tesis sobre Feuerbach*. Hemen eskuragarri: <https://www.ehu.es/Jarriola/Docencia/EcoMarx/TESIS%20SOBRE%20FEUERBACH%20Thesen%20ueber%20Feuerbach.pdf>
- Moreno Sardá, Amparo (1986). *El arquetipo viril, protagonista de la historia. Ejercicios de lectura no androcéntrica*. Bartzelona, LaSal, Edicions de les Dones.
- Oxfam Internacional (2022a). *Desigualdad extrema y servicios sociales básicos*. Hemen eskuragarri: <https://www.oxfam.org/es/que-hacemos/temas/desigualdad-extrema-y-servicios-sociales-basicos>
- Oxfam Internacional (2022b). *First crisis, then catastrophe*. Hemen eskuragarri: <https://oxfam.box.com/s/hv91efeua9tu2eupykpg0taksojwcb1v>
- Pérez Orozco, Amaia (2018). Economía feminista: viva, abierta y subversiva. *CTXT*, 168. zk. Hemen eskuragarri: <https://ctxt.es/es/20180502/Politica/19356/economia-feminista-heteropatriarcado-genero-cuidados-ecologia-capitalismo-amaia-perez-orozco.htm>
- Rauber, Isabel (2014). Descolonización, liberación y educación para el cambio civilizatorio. *Actas del IV Congreso de Educación para el Desarrollo*. (Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriak 9, 10 eta 11). Bilbo, Hegoa. 19-56. or. Hemen eskuragarri: [http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/271/Actas\\_IV\\_Congreso\\_ED.pdf?1488539841](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/271/Actas_IV_Congreso_ED.pdf?1488539841)
- Rauber, Isabel (2018). *Descolonizar la subjetividad. Hacia una nueva razón utópica indo-afro-latinoamericana*. La Habana, Filosofía Institutua.
- Rojas Martínez, Axel (2018). Abandonar la arrogancia colonial: una asignatura pendiente de gran parte de los proyectos educativos. *Revista Hariak. Recreando la educación emancipadora*. 6. zk., 10-17. or. Hemen eskuragarri: <https://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/399>
- Toledo, Víctor M. (2022). El malestar civilizatorio. *PAPELES de relaciones ecosociales y cambio global*. 158. zk., 13-26. or. Hemen eskuragarri: [https://www.fuhem.es/papeles\\_articulo/el-malestar-civilizatorio/](https://www.fuhem.es/papeles_articulo/el-malestar-civilizatorio/)



1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eziguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigratioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Eflen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informazioa. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.
17. **Txina: Garapen ereduaren birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria.** Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.

18. **Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina.** Maria Lopez Castillo, HEGOA/EHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. **Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak** Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. **Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena.** Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa<sup>1</sup>, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Análisi Ekonomikoko Saila, EHU.
21. **Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatibean bila.** Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. **Errenta eta aberastasun banaketaren desperekotasuna munduan.** Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. **Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertze gakoak.** M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. **Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak.** Eduardo Bidaurratzaga Aurre, Elena Martínez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. **Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan.** Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOA Institutua UPV/EHU.
26. **Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomenoak.** Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. **Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala.** Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatze erroka.** Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea. .

